

Aurten bai!

Elgoibar - 1247. zenb.
XXXI urtea - 2022-06-10



TOKIKOM

BARREN



10 Egun Kia.

Ekainaren 9tik 20ra.

NAIA CAR

Apalategi auzoa,1
Elbar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

☎ 943 70 70 33

KIA

Kontu-litu eskaintzaren baldintzak eta betekizunak www.kia.com helbidean.
Eskaintza honek Penintsulako, Balcár Lhartetako, Melliako eta Andorrako kontzisionario sare osorako balio du.





EusKara ala ezKara irolean?

jardunaldia

Irailak 3, larunbata • IMH ikastetxean • 9:30-14:30

Zein da Elgoibarren kirolak duen dimentsioa eta eragina?

Zein dira elgoibartarrok gehien egiten ditugun kirolak?

Elgoibarren euskaraz egiten al da kirola? Zenbat bai eta zenbat ez?

Zergatik da garrantzitsua kirola euskaraz egitea?

Kirola ere herrigintza al da? Zergatik?

Zelakoak dira eliteko kirolariak? Bizimodu eroso al dute?

Gonbidatuta zaudete:

- Kirol elkarteetako lehendakari edota zuzendariak.
- Eskola Kirola programako eragileak: ikastetxeak, guraso-elkarteak,...
- Kirol-entrenatzaileak eta hezitzaileak.
- Kirola eta euskara bat eginda ikusi nahi duten euskaltzaleak.
- Kirolari lotutako enpresa pribatuak.
- Kirolariak eta kirolzaleak.

Izena emateko eta informazio gehiagorako:

Elgoibarko Izarra: 943 741 626 - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Udal Kirol Patronatua: 943 744 415 - olaizagaharrera@hotmail.es

Prezioa: 10 € (15 € pintxo-bazkaria geratzen direnek)

(Doan, Elgoibarko kirol elkarte eta entitateetako kideek).

Izena emateko azken eguna: uztailak 15.

Antolatzaileak



Laguntzaileak:



Babesleak



Gipuzkoako Foru Aukundia

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Sara Iriondo Otaño

Gizarte ekintzailea

Gehiegi pentsatzen duzu



“Ostegunetik igandera poteoan dabiltzan heldu batzuk arduratuta daude 13 urtekoek alkoholarekiko duten interesagatik”

Hondartza hau gustuko dut. Itsasoa oso polita ikusten da hemendik. Urak kolore berezia dauka gaur. Hala iruditzen zait niri behintzat. Bainu bat hartzera joatea izango da onena. Jende mordo dago. Zelako txuriak dauden denak. Zelako txu-ri-ak dauden denak? Gazte bat irten da hondartzako lehen lerroko eraikin horretatik. Berea izango ote da terraza erraldoia daukan etxe zoragarri hori? Bai, seguruenek, eta bere familian enpresaburu esplotatzailearen bat egongo da, zalantzarik gabe. Zer pentsamendu klase da hori? Zer klase pentsamendu?

100.000€ko sarrera ordaindu ahal izango banu eta egun jasotzen dudan soldatarekin, ez dakit noiz arte egon beharko nintzatekeen horrelako etxe bat ordaintzen... 55 urte bete arte, 60, 65, 75? Ez dut behar. Behar, behar, zer behar dut ba? Seguru itsasoko ura hotz-hotza dagoela. Ez naiz sartuko, katarroa harrapatuko dut bestela.

Tira, hemen gelditzen banaiz ordea, agian mareatu egingo naiz. 10 urte nituela gurasoek hondartzan goitik behera biluztera animatu ninduten eta beraiek bainujantzia jantzita pasatu zuten eguna. Haur batek zenbat urte bete arte ez du atenziorik deitzen hondartza ez nudista batean biluzik ibiltzean? Eta heldu baten laguntzaz kaleko estolda batean txiza egitean? “Ez zaitetz umea izan!”, “Umeegia da”, “Umeak baino txarragoa zara”, “Ez da horrenbesterako, umekeriak dira horiek!”, “Umeak bezala ibili ginen.” Zenbat gauza ezkututzen ditu “ume” batek? Egiten duen beroarekin trago bat hartzera joatea izango da onena. Ez daukat ura ez den ezer edateko gogorik. Batzuk baso bat ur eskatzeaz lotsatzen dira eta harro edaten dute seigarren kubata.

Ostegunetik igandera poteoan dabiltzan heldu batzuk arduratuta daude 13 urteko nerabeek alkoholarekiko duten interesagatik. “Zer irakasten diete eskolan?” Eta zer ikasten dute plaza handian jolasean ari direnean...

BARENek ez du bere gain hartzen Irizia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Ikastola Eguna

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu bi urte zail hauen ostean joan den larunbatean, ekainaren 4an, ospatu zen Ikastola Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, parte hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro zen. Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei!

Laguntzaileak: Agurtzane ileapaindegia, Ainhoa fisioterapia, Alire, Alkorta bakailoak, Amagoia, Ametsa, Ana Moscula arauzo, Aranburu bitxi denda, Armueta, Astpi's Bags, Azkue, Bankoa, Beitia-Arriola hortz klinika, BM, Barrenetxea-Etxeberria, Belaustegi,

Beristain, Bernardo Ecenarro, Berdin, Bizkor bizikletak, Caixa, Caja Rural, Castrillejo estankoa, Car avant Euskadi, CD Elgoibar, Denetik, Doña Mercedes, Ecenarro lentzeria, Eneritz, Elgoibart, Elgonet, Eizagirre, Elgoibarko Udala, Ene bada, Eroski, Fadek, Farmazabal, G&M, Garate jantzi denda, Gautxo, Gertu fisioterapia, Garitonandia farmazia, Idama, Izaro Etxegibel, Ikasi, IMH, Irune Arriola, Iriondo kirolak, Iturri taberna, Jasone Osoro, Jose Antonio ile-apaindegia, Kaia, Kala, Karkizano, Kemen belardenda, Lerun, Laboral, Lanbroa, MTE, Maala, Magi bitxiak, Mekanosa, Moma, Noa, Otzarreta Haragitegia, Pelegrin, Pepe estankoa, Pilon, Pitxintxu, Raquel De La Arada, Salento, Sara jantzi denda, Sanlo, Sigma jatetxea, Siu fisioterapia, Surya belardenda, Txarriduna, Txillarre, Uzuri, Udal liburutegia, Viento Sur, Xarlem kreaioak, Zazpi informatika, Ziarda harategia, Zu gehi ni.

Ikastola Eguneko Batzordea



I.URTEURRENA

Felisa Etxabe Egibar

2021eko ekainaren 13an hil zen, 103 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



Joxe Bilbao Garate

2022ko ekainaren 8an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Pertsona umila, alaia,
argia eta eskuzabala;
aita, senar eta lagun artean
izan zara espeziala.
Jakin gure bihotzetan
bizi izango zarela.***

Etxekoak



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044




Herritik aldentuta dauden auzoak ere zaindu egin behar dira:

"Karkizaoko aldapa zuloz beteta dago aspalditik, eta Udalak ez du inolako konponketarik egin ingurune horretan denbora askoan. Zonalde honetan ez da inolako neurririk hartzen eta hogeitazentimetro inguruko zuloak bistakoak dira. Herri erdian ez dauden auzoak gehiago zaindu beharko lituzke Udalak.



Mendaroko Ospital inguruan errepidea hondatuta dago:

"Mendaroko Ospital bueltako bidea ez dago egoera onean, eta leku askotan asfaltoa zulatuta dago. Dagokionari eskatu nahi nioke konpondu dezala, zuloa gehiago handitu aurretik".



Eraikinetako argiak itzali egin behar dira: "Meka parean bizi naiz eta harrিতa nago bertako gailu elektronikoak (ordenagailuak, proiektoreak...) eta baita geletako argiak ere piztuta uzten dituztelako. Askotan, asteburu osoan zehar egoten dira piztuta. Gaur egun energiaren gaia hain presente edukita eta eraikinetako sabaian eguzki plakak izanda, pena da energia horrela xahutzen dela ikustea. Arduradunek neurriak hartu beharko lituzkete, eta esaterako, tenporizadore bidezko etengailuen instalazioa irtenbide aproposa izan daitekeela iruditzen zait".

Bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak, murrizketarik gabe

Bihar hasiko da uda denboraldia Elgoibarren, eta irailaren 11ra arte egongo dira zabalik Mintxetako igerilekuak. Astebarruan 11:00etan zabaldu eta 20:30ean itxiko dituzte, eta asteburuetan, berriz, 10:00etatik 20:30ak arteko ordutegia izango dute. Abuztuan eta irailean, hori bai, 20:00etan itxiko dituzte. Uztailaren 25ean eta abuztuaren 24an, jaiegunak direnez, 10:00etan irekiko dituzte. Aldiz, abuztuaren 25ean, Txiki Egunean, irekita egongo dira, 11:00etatik aurrera.

Bi urte eta gero, aurtengoan, ez da aforo murrizketarik egongo, eta belargunean ere ez dute partzelarik markatuko.

Abonuei dagokienez, aurtén, sei hilabeteko kirol-abonua ekainaren 11tik aurrera erabiltzen hasi daitekeela zehaztu dute Udal Kirol Patronatutik, uztailaren 1ean hasi beharrean.



Udako abonauak:

Banakakoa <18: 70,40 €
 Banakakoa >18: 79,00 €
 Jubilatua >60: 70,40 €
 Jubilatu familiarra >60: 116,80 €
 Ikaslea: 73,50 €
 Familiarra (Elgoibar): 138,60 €
 Ezinduak: 66,20 €

Egun bateko sarrera:

<18 urte: 4,00 euro
 >18: 6,00 €

Gaur bukatuko da robotika ikastaroan izena emateko epea

Elgoibarko Udalak Elhuyarrekin elkarlanean sustatutako Bizilabe Elgoibar aisialdi eskaintzan izena emateko epea ireki du. 2022ko urritik 2023ko maiatzera izango da ikasturtea, eta LH1etik aurrerako ikasleek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko epea gaur amaituko da, eta

ondorengo webguneetan eman daiteke izena: Webgune www.bizilabe.elhuyar.eus/elgoibar edo <https://doplay.es/robotika-dibertigarria/>.

Ekainaren 10etik aurrera, libre geratu diren plazetan izena emateko aukera zabalik utziko da.

Pentsio duinen aldeko bizikleta martxa martitzenean iritsiko da Elgoibarrera



Euskal Herriari bira emango dion bizikleta martxa antolatu du Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduk, pentsio duinen alde, eta Elgoibarrera ekainaren 14an iritsiko da. Aurrekua dantzatuko diete Maalan 12:00etan, ongietorria egiteko, eta ondoren, manifestazioa egingo dute Giza Eskubideen plazara arte. Han ekitaldia egingo dute, zuzeneko musikarekin, eta horren ostean, elkarrekin bazkalduko dute martxan parte hartuko duten txirridulariek, indarrak berreskuratzeko eta euren bidean Ondarroaraino jarraitu ahal izateko.

Txankakuak eta Aizuk! 'Kafe 1 doan' kanpaina jarri dute martxan

Txankakua merkatari elkarteak eta Aizu! ostalarien elkarteak herriko saltoki txikietan kontsumoa sustatzeko eta bezeroak saritzeko kanpaina jarri dute abian. Herriko saltoki txikietan erosketak egiten dituzten bezeroei txartel bat emango diete, eta oparia izango dute txartel horietako askok, 1.700 txartelek, hain justu ere: kafe bat debalde hartzea izango da saria. Aizu! ostalarien elkarteak 21 tabernatan edo jatetxetan trukatu ahal izango dira saritutako txartelak kafea hartzeko. Nahi duenak ebaki bat edo infusioa ere eskatu ahal izango ditu saritutako txartelaren trukean. Kanpaina uztailaren 10ean amaituko da.



Berdintasuna sustatzen duten proiektuetarako dirulaguntzak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten proiektuak garatzeko 10.000 euroko dirulaguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak. Lehen deialdia udalerriko elkartei zuzenduta dago, eta guztira 4.000 euro erabiliko dira genero berdintasuna sustatzeko programak eta jarduerak abian jartzeko. Era berean, berdintasunaren aldeko programa

zehatzak garatzen dituzten Elgoibarko emakumeen elkarteentzako dirulaguntzen deialdia ere zabaldu dute. Lerro horretarako, Udalak beste 6.000 euro emango ditu.

Dirulaguntzak eskatzeko epea uztailaren 15ean amaituko dela zehaztu dute Udaletik. Eskaerak www.elgoibar.eus webgunearen bitartez egin behar dira.

Idotorbek aparkaleku kontrolatua eta garbiketa zerbitzua izango ditu udan

Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez, urteko sasoi honetan bisitari asko izaten ditu Idotorbek, 33 baserriz osatutako baserri-auzoak. Hori dela eta, bizilagunek eta bisitariak inguruak eskaintzen duen lasaitasunaz gozatzeko jarrai dezaten, Idotorbeko garbitasuna eta segurtasuna handitzea erabaki du Udalak. Besteak beste, komunak, eremu amankomunak, zelaia eta aparkatzeko gunea garbituko dituzte aldizka, aparkalekua kontrolatuko dute, eta elkarbizitza-arauak betetzen direla eta zelaia "behar bezala" erabiltzen dela zainduko dute, irailaren 19ra arte.

Besteak beste, honakoak zainduko dituzte: Ibilgailua aparkalekuan ondo aparkatzea, parrillean bakarrik su egitea, zuhaitzetako



adarrak ez moztea, zaborrak edukiontzietan edo paperontzietan botatzea, txakurra beti lotuta eramatea, eta natura eta ingurunea errespetatzea.

Dolmenen Ibilbideari buruzko liburua aurkeztuko du Aranzadik hilaren 19an, Karakaten

Aranzadi Zientzia Elkarteak Karakatetik Irukurutzetara bitartean dagoen Dolmenen Ibilbideari buruzko liburu bat aurkeztuko du datorren ekainaren 19an, eta liburu horretan besteak beste, ingurune horretan egin dituzten aurkikuntza arkeologikoei buruzko informazioa jaso dute. Liburuaren aurkezpena Karakaten bertan egingo dute, 11:00etan. Hori dela-eta, Morkaiko mendizale elkarteak herritik elkarrekin joateko deia egin du. 9:00etan abiatuko dira Kalegoen plazatik. Liburuaren aurkezpenaren ostean, haurrentzako tailerrak egongo dira, eta 12:30 aldera salda eta txorixoa banatuko dituzte. Antolatzaileek jakinarazi dute egun horretan Soraluzetik Karakatera igotzeko bidea itxita



egongo dela autoentzat, baina nahi duenak autobus zerbitzua izango duela, Soraluzeko Mendiola industrialdetik. 9:00etan jarriko dute martxan autobusa, eta azken jaitsiera 13:30ean egingo du. Autobusez igotzeko izena eman behar da turismoa@debegesa.eus helbidean.

Ikastola Eguneko errifaren zenbaki sarituak jakitera eman ditu Ikastolak

Joan zen zapatuan Ikastolaren Eguna ospatu zuten, eta beste hainbat ekintzaren artean, errifak saldu zituzten: Hauek dira zenbaki saridunak: 1. saria: 150 (ordezkoa, 279). Bi pertsonentzako eguneko menua, Maala tabernan. 2. saria: 1112 (ordezkoa, 118). Alkorta Bakailuak-ek eskeinitako otarra.

Kirol argazkien lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udalak eta Ongarri argazkilari taldeak kirol argazkien lehiaketa jarri dute martxan. Interesa duen orori dago zuzenduta, haur, gazte zein nerabe, profesional edo zaletu orori, eta gai nagusia, kirola izango da, bere arlo zein modalitate guztietan.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara, originalak eta argitaratu gabeak. Argazki horiek, era berean, paperean aurkeztu beharko dituzte, koloretan nahiz zuri-beltzean, eta irudiak tratatzeko edozein prozedura edo teknika onartuko dute. Lanak Olaizaga kiroldegian aurkeztu behar dira (32. posta kutxatilan) uztailaren 22a baino lehen. Argazki bakoitzaren atzean izenburua edo leloa eta zein mailalara (herritarrak, gazteak, orokorra) aurkezten den adierazi beharko da, eta horrekin batera, partaidearen datuak kartazal baten barruan.

Sari nagusia 300 eurokoa izango da, eta bigarren saria 200 eurokoa. Gazteentzako lehen saria ere 300 eurokoa izango da, eta bigarren saria 200 eurokoa; eta herritarrentzako saria 200 eurokoa. Argazki guztiekin erakusketa egingo dute, Olaizaga kiroldegian, irailaren 1etik 30era. Lehiaketari buruzko argibide guztiak www.elgoibar.eus webgunean kontsultatu daitezke.



ALAIN RODRIGUEZ

LEINN graduko ikaslea eta 'Mujeres de la luna' proiektuaren sustatzaileetako bat

✍️ Ainara Argoitia

Mondragon Unibertsitatean LEINN Lidergo Ekintzailea eta Berritzailea graduko bigarren urtea betetzen ari da Oñatiko campusean Alain Rodriguez (Mendaro, 2002) eta Ane Davila ikasle eibartarrarekin eta Malen Jurado aretxabaletarrarekin buru-belarri sartuta dabil 'Mujeres de la luna' proiektuan [Instagramen: @m.delaluna]. Proiektu horren baitan, ekainaren 14an, Guatemalara bidaiatuko du, Santa Cruz la Lagunara zehazki, hango tokiko ekonomia bertako emakumeekin batera sustatzeko asmoz.

Gazteez esan izan da ekintzailletza izpiriturik ez dutela. Zer duzu esateko?

Ez dakit. LEINN graduan enpresa bat sortzeko eskatzen digute sartzeaz batera eta Benu da nirea. Enpresa sortzerako, baina, argi neukan gai sozialak landu nahi nituela eta tematika horrekin lotutako proiektuak gauzatu nituela, eta horregatik batu nintzen talde honetara, LEINN gradua ikasten ari garenon artean proiektu asko daudelako martxan jarrita, baina gutxi direlako nik nahi nuen horrekin ezkontzen zirenak. Garbi neukan ez nuela neuretzat bakarrik lan egiterik nahi; ekarpen bat ere egin nahi nion beste jende bati.

Zein izan den 'Mujeres de la luna' proiektuaren lehen hazia? Nondik datorkio izena?

Kaqchikelez *Ik ixok* jarri zioten izena proiektuari hango emakumeek eta gaztelaniazko itzulpena da *Mujeres de la luna*. Ane Davila taldekideak sortu zuen proiektua, 2019an. Guatemalako emakumeek lan merkatuan zituzten aukerak, betetzen zituzten rola eta abarrak aztertze asmoz joan zen Ane Guatemalara, Gobernu Kanpoko Erakunde baten bidez. Boluntario lanetan jardun zen han emakume eta haurrekin, eta konturatu zen erakunde hark ez zituela batere ondo tratatzen han bertako emakumeak. Ikusi zuen emakumeek eta haurrek ez zutelako dirurik jasotzen egiten zuten lanagatik, etekin ekonomiko guztia erakundeak beretzat hartzen zuelako, eta gainera, bera bezala boluntario joandakoek ez zitelako benetan bertakoen



“Guk ez dugu haientzat lan egingo Guatemalan, haiekin baizik”

beharrei erantzuten. Bertakoek egin zezaketen lanetan aritzen ziren boluntarioak, adibidez. Kanadako bi kazetari ere bazeuden Aneren talde hartan eta Estatu Batuetako egunkari batean salatu zuten ikusitakoa. Geroztik, Gobernu Kanpoko Erakunde horrek ez dauka baimenik boluntariotzan jarduteko. Dena den, salatu ondorenean halako kezka bat sortu zitzaion Aneri. Ez zen ondo sentitzen, ikusi zuelako salaketa horren ondorioz familia haiek ezer gabe gelditzeko arriskua zutela. Askotan gertatzen da hori: gu joaten gara garatzeko bidean diren herrialdeetara gure pribilegioekin, salatzen dugu hango egoera eta babesik gabe gelditzen dira hango emakumeak. Eta horregatik sortu zuen *Mujeres de la Luna* proiektua.

Zer du helburu nagusizat proiektuak?

Guatemalako Santa Cruz la Lagunan ari gara lanean eta asmoa da hango emakumeek dituzten beharrei erantzuten laguntzea. Horretarako bilera



Mujeres de la luna egitasmoko emakumeak, lanean.

batzuk egin dituzte nire taldekideek eurekin, guretzako garrantzitsuena hori delako, beraiek proiektuko sentitzea, eta guk gure ezagutza eskaintzea behar duten hori lortzen laguntzeko. 40 urte bueltako emakumeak dira, eta beren seme-alabetako batzuk ere proiektuko kide dira orain. Emakume horietako asko alfabetatu gabeak dira. Ez dakite irakurtzen eta idazten, eta Internet ere gauza berria da haientzat. Baina bitxiak eta eskulanak egiten dituzte, badute bitxitegi bat ere, eta lan egin nahi dute turismoari lotuta. Santa Cruz la Lagunak Atitlan lakua du beheragoan, baina gertu. Leku turistikoa da oso Atitlan, baina turistak ez dira iristen herrixkaraino.

Emakumeen ahaldunderako proiektua da zuena orduan, ezta?

Bai, hori da. Ahaldunderako tresnak eskainiko dizkiegu, beren proiektuak gauzatu ditzaten, eta bide batez, beren bizimoduari etekin ekonomikoa atera diezaioten. Horren barruan, turistak erakartzeko ahaleginean ari gara. Emakumeen lana eta komunitate oso baten biziera bistaratu nahi ditugu. Turistei erakusten diete nola sukaldatzen duten komunitate horretan, erakusten dizkiete eskuz egindako lanak... Eguneko esperientziak eskaintzen zaizkie turistei eta etekin ekonomiko bat lortzen dute bertakoek, baina baita prestakuntza ere.

Bidaia bat ere antolatu duzue orain, eta "Ez boluntariora" abizena jarri diozue. Zeintzuk dira bidaia horren ezaugarriak?

Mendebaldeko gizaki zurien begirada hori, salbatzaile garen uste hori, ez zaigu batere

"Askotan gertatzen da hori. Joaten gara garatzeko bidean diren herrialdeetara gure pribilegioekin, salatzen dugu hango egoera eta babesik gabe gelditzen dira bertakoak"

gustatzen eta boluntarioen programa askotan hori ikusten dugu guk. Dena dakigun uste horrekin joaten gara garatzeko bidean diren herrialdeetara eta esaten diegu zeintzuk arazo dituzten, zer behar dituzten, tokiko ekonomiak zer behar duen entzun gabe. Ikuskera horrekin ez dugu bat egiten guk, eta horregatik jarri diegu ez boluntariora izena.

Eta zerk bereizten du zuen proiektua begirada horretatik?

Gure bidaia hartueman batean oinarritzen da. Gu ez goaz hara argazki batzuk egitera edo euren bizitza geure nahierara aldatzera. Iruditzen zaigu asko dugula ikasteko haiengandik ere. Naturari oso lotuta bizi den komunitatea da, komunitate sentimendu handia duena gainera, eta erakusteko eta emateko asko duena. Eta askotan bidaiari moduan izaten dugun begirada hori aldatu nahi dugu. Guk ez dugu haientzat lan egingo, haiekin baizik. Horretarako, astero egiten ditugu bilerak eurekin, batez ere emakume taldeko arduradunarekin, eta dinamika horretan adosten dugu haiekin zer nahi edo behar duten. Ni ez noa hara aurrez buruan ideia bat dudala. Zabalik noa, entzutera eta ikastera, eta ahal dudan

*"Epe luzera lortu nahi duguna
da emakumeek beren proiektuak
autogestionatzeko gai izatea"*

neurrian, laguntzera. Batez ere arlo logistikoan laguntzen diegu guk. Turismoa landu nahi dute eta guk komunikazio lanak egiten ditugu turisten eta bertako komunitateko kideen artean, eta era berean, saiatzeko gara komunitate hori bistaratzeko. Bitartekaritza lana da gurea, baina gero euren antolatzen dira, euren joaten dira turisten bila, eta batzen duten dirua eurentzat da, jakina.

Nolakoa da hangoen bizimodua?

Ni estreinakoz noa hara eta ez ditut ezagutzen, baina taldekideek kontatu didatenetik dakit nekazaritza eta atzeritarren etxeak eta lurak zaintzetik bizi direla hein handi batean beraien komunitatean, eta seme-alaben zaintza eta etxearena emakumeen ardura direla. Aguakatea, artoa, kafea... hartzen dute han bereziki, eta nekazariak dira asko, baina garraioan-eta lan egiten dutenak ere badira, gizonak gehienak. Ideia askoko emakumeak dira, emakume ekintzaileak, baina baliabideak falta dituzte ikasteko, eta beraz, hazteko. Badago han lan egiten duen Gobernu Kanpoko Erakunde bat formatzen dituen emakumeak turistak beren etxeetan hartzeko. Tailer hori, baina, ordaindu egin behar dute emakumeek eta askok ez dute dirurik. Eta guk horretarako dirua biltzea ere badugu gure helburuen artean. Proiektuarekin lortzen dugun diruaren parte bat emakume horien prestakuntzarako erabiliko da. Hau da, batzuetan guk geuk emango diegu formazioa, eta beste batzuetan dituzten formazio-aukerak ordaintzen lagunduko diegu. Era berean, urtebeterako wifia ere ordainduko diegu aurten eta datorren urtera begira espazio bat ere sortu nahiko genuke, bilgune bat, lanerako toki bat izan dezaten.

Zenbat lagun zoazte eta zein perfiletakoak?

18 urtez gorako bidaiarien bila ibili gara, eta momentuan zazpi lagun dauzkagu joateko prest, perfil ezberdinetakoak: badago magisteritza egiten ari den bat, badaude itzulpegitza ikasten ari direnak... Denekin egon gara aurrez, emakumeentzat espazio segurua bat sortu nahi dugulako. Proiektuan hori izan da bereziki nire lana: Ez boluntariorik ideia hori lantzea eta zabaltzea, eta bidairako jendea batzea. Hornitzaileak-eta lotzera noa ni hara, baina ni hara iristen naizenerako erabakita dute zer landuko duten: turistekin komunikatzeko dituzten bideak hobetu nahi dituzte. Beraien

hizkuntza ez da berez gaztelania; Kaqchikela da beraien etxeko hizkuntza eta eskolara joateko aukera izan dutenak moldatzen dira gaztelaniaz ere, baina gutxiengoa dira. Gurekin bidaiatuko dutenak turista izango dira han, baina ez ohiko turistak. Ariketa praktikoa moduko bat izango da hau, benetako turistak hartzeko prestatzeko bertako jendea. Praktika horren bidez ikusiko dugu zer hobetu dezaketen turismoa sustatzeko. Ekintzailtza proiektu berrietarako hazia ere erein nahi dugu, baina horretarako zer beste behar duten ere entzun behar dugu. Epe luzera lortu nahi duguna da emakumeek beren proiektuak beraien autogestionatzeko gai izatea. Bide batez, eta aurrerago begira, aztertuko dugu proiektua beste komunitate batzuetara edo herrialde batzuetara zabaltzeko aukerarik duen.

Badago aukerarik oraindik izena emateko bidaiarako? Zeintzuk dira baldintzak, zenbat ordaindu behar da?

Taldea ez daukagu itxita, ez. Berez, hogeitahiru lagun batu nahi genituen, hamar laguneko bi taldetan joateko: batzuk uztailaren lehenengo hamabostaldian, eta beste hamarrak bigarrenengo joateko. Ez gara kopuru horretara iritsi, baina gurea proiektu txikia da eta pozik gaude zazpi lagunek konfidantza agertu digutelako. Orain, lau lagun egongo gara han, gu hiru eta Ekintzailtza ikasten ari den madrildar bat, eta bigarren txandan, zortzi lagun egongo gara han, sei bidaiari eta gutako bi. Lehenengo txandakook ekintzailtza landuko dugu bertakoekin batez ere, eta bigarren txandakoak gehiago joango dira haien esperientziatik ikastera. Hara joango direnei ez diegu gaitasun apartekorik eskatu, bakarrik zurien salbatzaile ikuspegi horren kontziente izatea. 750 euro ordaindu dituzte datozenek eta prezioan sartzen dira aseguru, herrialde barruko garraioa eta emakumeekin biziko dituzten esperientziak. Hegazkin bidaiara dago prezioan sartuta. Diru horren %20 irabazia da, eta diru hori dena proiektuan inbertitzeko da guk ez dugulako ezer poltsikoratuko.

HEMEN DIRA TRINITATE JAIAK

Bi urteko etenaren ostean, hemen dira Trinitate Jaiak, eta dena prest dago Elgoibarren zein Mendaron, asteburu honetan murrizketarik gabeko lehenengo jaiak ospatzeko. Orriotan batu ditugu asteburuko ekintzarik aipagarrienak.

✍ Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia

ELGOIBAR

ELGOIBARKO BASERRIETAKO SAGARDO LEHIAKETA

Zazpiki elkarteak antolatuta, Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa egiten hasi ziren 2009an, eta aurreko hamabigarren edizioa ospatuko dute. Ondorengo baserriek hartuko dute parte: Armazio, Marigorta, Gelasoro, Antsolabazterra, Antsolaerdikoa, Aranburu, Zulueta, Oa Nagusia eta Lizagasar. 2 euroan salduko dute edalontzia, eta horrekin nahi beste sagardo probatzeko aukera izango da. Edalontzia erosten dutenei txartel bat emango diete, sagardoei puntuazioa emateko, eta puntu gehien batzen dituenak irabaziko du lehiaketa. Irabazleari aginte makila emango diote, aurreko urteetako irabazleen zerrendara zinta bat gehiago batuta, aurtengo baserri irabazlearen izenarekin.

Antolatzaileek nabarmendu dute Elgoibarko baserri askotan egiten dutela sagardoa, eta



ekimen honi esker, sagardo hori ezagutzera emateko aukera izaten dutela baserriarrek. Sagardo mota oso desberdinak dastatzeko aukera izango dute beraz, bihar, Aita Agirre plazara gerturatzen diren herritarrek, izan ere, baserri bakoitzak sagar klase desberdinak nahasten ditu, eta botilaratzeko erabiltzen duten sistema ere bakoitzak berea dauka. Baina denak sagardo artisauek dira, konbentzionalak oso bestelakoak.

TRINITATEETAKO AZOKA BEREZIA

Trinitateetako azoka berezia egingo dute bihar, Debemen elkarteak Udalaren eta Elgoibarko landa auzoetako bizilagunen laguntzarekin antolatuta. 9:30etik 17:00ak arte ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre Plazan: Elgoibarren hazitako arraza desberdinetako 90 bat buru izango dira guztira: Aiastitxiki, Berdezkunde, Garate eta Zulueta Bekoa (Pirenaika), Orube eta Ziardatxiki Goikoa (Limusinak). Horrez gain, Enkarterrialdeko Astoak (Akei), Zaldi Arabiarra eta Española (Juaristi), Euskal Herriko Mendiko Zaldiak



(Artesoro), Poniak (Irunagasoro), Pottokak (Sorueta), Moxalak (Armaitxa-Erdikua). Baita

ere, Suffolk Ardiak (Sagarraga), Berrichon ardiak (Iriarte), Sasi ardiak (Irunagasoro), Ardi Mutur Gorriak (Mintxeta), Ahari Latxak (Mardari-Zurieta), Ahuntz Azpi Gorriak (Irunagasoro), Ahuntz mestizoak (Urruzuno).

Era berean, 9:30etik 14:00etara, Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai

Lekueder parkean. Hauek hartuko dute parte: Txillarrek, Lizundiatxabolak, Basartesorotak (Basueta), Madarizurietak (Mausitxa), Mintxetak, Zortziko eztiak eta Lizagasarrek. 11:00etatik aurrera, bestalde, Lumagorri oilaskoa eta Basatxerri txerrien pintxoak dastatzeko aukera egongo da, 2 euroan.

NAGUSIEN DANBORRADA

Atabal elkarteak antolatzen du nagusien danborrada, eta arduradunek esan dutenez, bi urteko etenaren ostean, ilusio handiz daude parte-hartzaileak. Aurten 40 bat partaide berri arituko dira danborradan, eta guztira 200 bat lagunek hartuko dute parte. Danborra edo kupela jotzen, sukaldari, mikelete, gastadore, abanderatu edo artillero (arma lizentzia beharrezkoa da horretarako) postuetan hartu daiteke parte, eta antolakuntzatik argitu nahi izan dute ez dagoela danborradan parte hartzeko itxaron zerrendarik orain arte uste zen bezala. Argi laga nahi dute beraz, 18 urtetik gorako guztiek dutela lekua danborradan, eta parte hartzeko gogoia duten herritar guztiak ondo hartuak izango direla danborradan.

Aurtengo danborradan ez dute karrozarik aterako, denbora luzez egon zirelako danborrada egingo zen edo ez jakin gabe, eta ez dutelako izan dena prestatzeko astirik, baina hala ere, berrikuntzak izango dira: Azepeitian brodatutako danborren estalkiak eta Paqui Ferreiro



danborradako kideak berak jositakoak erabiliko dituzte. Horrez gain, bi bandera handi ere aterako dituzte; bata, Pitxintxun egindako ikurrina, eta bestea, Azepeitian brodatutako danborradaren bandera.

23:00etan hasiko da danborrada Kalegoen plazan, eta aurten herritar guztiak omenduko dituzte. Pandemiarekin pasatu ditugun urte gogorren ostean, lehenengo festa handia izango denez, herritarrei eskaini nahi diete jaia.

UMEEN DANBORRADA

Trinitate Eguna izango da domekan, eta ohi bezala, umeen danborrada izango da egun horretako ekitaldi nagusia. Musika Eskolak antolatzen du umeen danborrada, eta bertako ikasleek hartzen dute parte. Aurten, 240 bat umek osatuko dute umeen danborrada, erdiak danborra jotzen eta beste erdiak, kupela, gutxi gorabehera. 15-16 bat ume berriz, karrozan joango dira. Danborradaren aurrean joango da zuzendaria, zaldia, artzainak eta inudeak, baina aurten ez da kantinerarik egongo. Kalegoen plazan hasiko da 12:00etan, eta aurtengoan berrikuntza modura



musikaterapian parte hartzen duten behar berezidun umeek ere hartuko dute parte. Herri guztia zeharkatuko du umeen danborradak, eta Kalegoen plazan amaituko da. Ohi bezala karroza

marrakzi bizidun ezagunetako protagonistei buruzkoa izango da, baina antolatzaileek azken unera arte ezkutuan gordeko dute gaia, herritarren sorpresa puntua mantentzeko.

MENDARO

ANGEL MARI IRIONDO, Trinitate jai batzordeko kidea



Bi urteko etena izan dute Mendaroko Trinitate jaiak, pandemia dela eta ez dela, eta eragina izan du horrek jai batzordean bertan. Horrek eta batzordekideen adinak ere bai. Urteetan gora doaz batzordekideak eta zaila dago erreleboa topatzea, baina jaia bertan behera lagatzeko ere ez daude umetatik Trinitatera lotuta sentitu direnak. Angel Mari Iriondo da horietako bat. "Mendarozabalgoon jaia beti izan da Trinitate, eta pena ematen du galtzen lagatzeak. Santa Isabelgo jaiak eta Aingeru Guardakoak amaitu ziren, eta ezin genuen hau ere galdu, Trinitate jai handia izan delako beti", dio. 2019an jai batzordean zeudenetako bik laga dute antolakuntza taldea, baina inguratu dituzte haien ordez beste bi taldera: Maurizio Maiora eta Jose Angel Isasti, eta eutsi diote ohiko egitarauari, ia oso-osoa. "Gauza bakarra laga dugu. Trinitate Txiki egunez, iluntzean, Aizpen egiten genuen afaria. Lana zen, eta gainera, urtetik

urtera jende gutxiago batzen ginen", zehaztu du Iriondok. Pozik daude zailtasun guztien gainetik, usadioari eutsiko zaiolako. "Iruditzen zaigu, gainera, jendea jai gosez ere egongo dela, bi urteko etenaren ostean, eta eguraldiak laguntzen badu, jai polita sortuko dugula". Herriko beste eragile batzuen laguntzarekin osatu ohi dute gaur hasi eta astelehenera arteko egitaraua. Bizi Poza txarangakoek hasiko dituzte gaur jaiak, eta herri osora zabaldu nahi lukete jai-usaina antolatzaileek. Egun handiak, baina, igandea eta astelehena izango dira. Igandeko mezan, Ameikutz Musika Eskolako ikasleek parte hartuko dute, eta ondoren herrikirol saioa egingo da, Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilariak lagunduta, eta astelehenean, ohi legez, ikastolako haurren bertso-saioa izango da eguneko ekintza nagusia. Eguna girotzen, Lizarralde eta Esnaola arituko dira astelehenean ere.

Elgoibar

EKAINAK 10, BARIKUA

18:00 Erromeria, Emudafek antolatuta, Kalegoen plazan.

22:30 Maraca Diabloren kontzertua, Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

EKAINAK 11, ZAPATUA

10:00-14:30 Trinitateetako azoka berezia: herriko baserrietako produktuen salmenta.

10:00-17:00 Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa, Aita Agirre plazan.

11:00 Kalitatezko produktuen dastaketa ("Euskal Baserrietako Lumagorri" oilaskoa, aire librean hazitako "Basatxerri" txerrien saiheskia eta hirugiharra), Elgoibarko baserri auzoetako ordezkarien laguntzarekin. Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa eta dastaketa, Zazpiki Kultur Elkarteak antolatuta. Lekuederreko karpan. Antolatzaileak: Elgoibarko Udala eta Debemen elkarteak.

12:00 I. Bereziartua Musika Eskolako trikitilarien kalejira.

18:00 Mauxitxa Txarangaren Kalejira, Mauxirekin eta Kiribilekin, Kalegoen plazatik hasita.

23:00 Nagusien danborrada, Udal Musika Bandak lagunduta, Kalegoen plazan.

EKAINAK 12, DOMEKA,

Trinitate eguna

9:00 Diana, Udal Txistulari Taldearekin.

10:00 Artisau azoka, Lekueder parkean.

11:00 Meza, San Bartolome parrokiaren. Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

12:00 Haurren danborrada, Inazio Bereziartua Musika eskolak antolatuta.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko Dultzaineroekin.

Mendaro

EKAINAK 10, BARIKUA

19:00 Bizi Poza txarangaren kalejira.

EKAINAK 11, ZAPATUA

17:00 Zuhaitza jasotzea, kanpai jotzea eta txapligoak.

EKAINAK 12, DOMEKA.

Trinitate eguna

10:00 Mendaroko txistularien kalejira.

11:30 Meza nagusia, eleiz abesbatzaren eta musika eskolakoen parte-hartzearekin.

12:30 Herri kirolak. Aroa Sanchez harria jasotzen eta Ugaitz Mugertza eta Julen Alberdi '*Txikia IV*', aizkoran.

Ondoren, Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilariak.

EKAINAK 13, ASTELEHENA.

Trinitate txiki eguna

11:00 Meza, Trinitateko basilikan.

12:00 Ikastolako haurren bertso-saioa.

Ondoren, Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilariak.



Elgoibarko Euskaraldia Taldeak hasi du hirugarren ekitaldirako bidea

J oan zen astean bildu zen estreinakoz Elgoibarko Euskaraldia Taldea, Euskaraldiaren hirugarren ekitaldia prestatzen hasteko. Une honetan 21 lagunek osatzen dute taldea; entitateetako ordezkariak dira batzuk, eta norbanako moduan parte hartuko dutenak besteak, baina taldetik jakitera eman dutenez, jende berria gonbidatu nahi dute taldera. Entitateekin hasiko dira lanean. Eta lehen zeregina Elgoibarko entitateak Euskaraldian izena ematera eta ariguneak sortzera animatzea izango dute. Ekainean, uztailean eta irailean egingo dute lan hori. Irailaren amaieran, berriz, norbanakoek izena emateko epea zabalduko dute. Kasu horretan, 16 urte izan eta euskara ulertzen duten elgoibartar guztiak animatuko dituzte Euskaraldian izen ematera eta ahobizi edo belarriprest roletako bat aukeratzera. Amaitzeko,



Euskaraldia jendarteratzeko plana ere adostu, eta irailetik abendura bitartean hainbat ekintza egingo dituzte. Hasi besterik ez dira egin, baina "gogotsu" daudela jakinarazi dute, euskaraldia elgoibartarren artean sustatzeko.

Zortzi ikaslek eskuratu dute Ohorezko Matrikula Elgoibar BH Institutuan



Elgoibar BHI eskolatik jakinarazi dutenez, Batxilergoko zortzi ikaslek lortu dituzte ohorezko matrikulak 2020-21 ikasturtean. Honako hauek dira: Aitor Gorosabel, Oihane Izquierdo, Ane Leonardo, Nora Barrenetxea, Andrew Irueta, Sara Parada, Irati De Anta eta Garazi Garrido.

'Esnatu naiz' kabaret ikuskizuna Mendaron, ekainaren 18an



Esnatu naiz kabareta taularatuko du Andoni Mutiloak (Hernani, 1976) Mendaroko San Agustin aretoan, ekainaren 18an. Generoa eta sexu-joera ezberdinak lantzen dituen obra da, eta LGBTI+ kolektiboko pertsonen oraindik ere normaltasunez bizitzeko dituzten arazoei buruzko gogoeta sustatu nahi du. Elur da protagonista, Londresen bizi den artista trans euskalduna. Bere atzean, Pello ezkututzen da: euskalduna, baserritarra, eta hamar urte atzerago Euskal Herriatik alde egitea erabaki zuena, bere nortasunarekin ezin zuelako Euskal Herrian lasai bizi.

Lesakara joan da Elgoibarko aire libreko margo lehiaketako sari nagusia

Egur Arte Tailerrak antolatuta, aire libreko margo lehiaketa egin zuten zapatuan Elgoibarren, Trinitate Jaietako egitarauaren barruan. Goizean goizetik, herriko txoko desberdinetan jarri ziren margolariak marrazten eta 14:30 aldera banatu zituzten sariak. Lehenengo saria Lesakako Javier Igoak irabazi zuen, eta bigarren eta hirugarren sariak Bergara aldera joan ziren: Ricardo Azkargorta eta Juan Jose Altunak jaso zituzten, hurrenez hurren. Elgoibartarren artean, Alvaro Espigaren lana saritu zuten.

Partaideen lan guztiak ikusgai



jarri dituzte Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta gaur iluntzera arte bisitatu ahal izango da erakusketa. Lehiaketako margolanek gain, Egur arte tailerreko ikasleen lanak ere egongo dira ikusgai erakusketa horretan. Zeramikak, akuarelak, olioak, marrazkiak, esmalteak...

askotariko lanak jarri dituzte erakusketan. 18:30etik 20:30era bitartean bisitatu ahal izango da. Umeen lanak ere erakutsiko dituzte, baina ekainaren 13tik 18ra. Erakusketa leku berean izango da, eta ordutegia ere bera izango du: astelehetik zapatuta, 18:30etik 20:30era.

2023ko egutegiko argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago

Elgoibarko Udalak 2023ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du aurten ere, Ongarri argazki taldearekin elkarlanean, eta dagoeneko zabalik dago parte hartzeko epea. Aurtengo gaia librea da, baina argazkiak Elgoibarren ateratakoa izan behar du. Partaide bakoitzak, gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina, gehienez ere, pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dituzte. Epaimahaiak hamabi argazki aukeratuko ditu egutegi handirako, eta beste bat, egutegi txikirako, eta aukeratutako argazki bakoitzaren egileak Txankakua merkatarik elkarteko dendetan gastatzeko 80 euroko bonua eskuratuko du. Argazkiak aurkezteko azken eguna 2022ko urriaren 6a, osteguna, izango da; eta lanak Aita Agirre kulturgunean edo euskara@elgoibar.eus helbide elektronikoan aurkeztu ahal izango dira.

Maraca Diablo taldeak kontzertua emango du gaur, Kultur Etxeko sotoan



 Alessandra de Schmidt

Pandemia betean, itxialdiaren gogorrean, sortutako piezekin eta gerora etorritakoekin ondu dute disko berria Maraca Diablokoek: Ina Iriondok (ahotsa, gitarra eta teklatuak), Josu Iriondok (baxua), Asier Etxanizek (gitarra eta ahotsa), Anita Perezek (ahotsa eta sintetizadorea) eta Rafa Furnierrek (bateria eta perkusioa). Gaur kontzertua emango dute Sinuösek antolatuta Kultur Etxeko sotoan, disko berria herritarren aurrean aurkezteko. 22:30ean izango da.

'Ekifesta' egingo dute gaur zortzi Lilan

Udari ongi-etorria emateko Ekifesta antolatu du Berdintasun Sailak ekainaren 17rako. Barre egin eta ondo pasatzeko asmoz antolatu dute: saioa hasteko, Getari Etxegaraik eta Beatriz Egizabalek bakarriketa bana eskainiko dute, eta gero, musikak hartuko du tarte. Ane Zabaleta piano-jole elgoibartarrak hainbat pieza joko ditu, eta Deñe Garcia musikari azpeitiarrak itxiko du saioa. Antolatzaileek ondorengo hitzak adierazi dituzte: "Emakumeak barreen xede izan dira, umorearen subjektu izan ordez. Zorionez, azken urteotan zerbait aldatzen ari da, umorea



heteroarau maskulinitik askatzen hasi delako askotariko emakumeak agertokira igotzeari esker. Nork dio feministok ez garela barregarriak?". 19:00etan izango da festa, Lilan. Izena emateko: <https://labur.eus/lila-ikuskizunak>

Zine forum saioa gaur, Lilan

Haizea Emakume taldeak antolatuta, zine forum saioa izango da gaur Lilan, 19:00etan. *80 egunean* filma ikusiko dute gaur, 2010ean Jon Garaño eta Jose Maria Goenagak idatzi eta zuzendutako euskal filma. Axun (Itziar Aizpuru) eta Maite (Mariasun Pagoaga) eskolan ezagutu ziren, baina bien arteko harremanak ezin izan

zuen laguntasunetik harago joan. Axun ezkondu egin da eta Maitek benetako sexualitatea ezagutu du. 50 urteren ondoren ospitalean topo egingo dute, eta lehengo sentimentuak berpiztuko dira. Donostiako Zinemaldian 2010eko Donostia Film Comissionen saria lortu zuen, baita Gehitu elkartearen Sebastiane Saria ere.

450 bat dantzarik hartuko dute Biraka dantza taldearen jaialdian



Biraka dantza taldea ere iritsi da ikasturte amaierara, eta datorren astean egingo dituzte jaialdiak. *Bec: Biraka Exhibition Center* izena jarri diote aurtengoari, eta hiru egunetan banatuta egingo dituzte jaialdiak, ekainaren 15ean, 16an eta 17an, hain zuzen ere. Egun bakoitzean 120-150 dantzari inguruk hartuko dute parte, guztira, beraz, 450 izango dira. Ikasle bakoitzari bi sarrera eman dizkiote, eta gainerakoak salgai jarriko dituzte, gaur, 18:00etatik 19:15era. Pertsona bakoitzak bi sarrera erosi ahal izango ditu gehienez.

Urban Sketching ikastaroa emango du Ibor Serranok hilaren 16an

Momentuan begi aurrean ikusten dena marraztean datza Urban Sketching teknika, eta horri buruzko ikastaroa emango du Ibor Serranok hilaren 16an. Ume zein helduentzako ikastaroa izango da, eta helburua da jendeak ikusten duenaren zirriborroa egiten ikastea, beldurrik gabe. Gotzon Garate Udal Liburutegian izango da, baina eguraldiak laguntzen badu, kalean marraztuko dute. Interesatuak liburutegian eman behar dute izena.



“Ibrahimak babes politikorik ezin bazuen eduki, gutxienez babes soziala izan zezan nahi nuen”

 Susa



AMETS ARZALLUS

Bertsolaria eta
'Miñan' liburuaren idazlea

 Ainara Argoitia

Irungo Harrera Sarean zebilela ezagutu zuen Amets Arzallusek Ibrahima Balde, eta haren kontakizunarekin osatu zuten 'Miñan' liburuia 2019an, elkarrekin. Balde 2018an abiatu zen Gineatik anaiaren bila, eta Irunera iritsi arte egindako bidea kontatzen dute liburuan. Eta liburuaz eta bien artean eraiki duten harremanaz hitz egin zuen Amets Arzallusek eguaztenean Elgoibarren, Elgoibarko Zabaltzen-Sartu irabazi asmorik gabeko erakundeak eskatuta.

Liburuaz esan izan duzu harreman baten istorioa dela. Nola hasi zen zuen arteko harremana?

2018ko urrian izan zen. Udaberritik hasita, Irungo Harrera Sareak bazeramakin bere martxa eta neu ere hor nenbilen, migratzaileei laguntzeko ahaleginean. Goizero, Irungo Renferen tren geltokitik hasita, itzuli bat egiten genuen bi muga ertzak pasaz, ikusteko ba ote zen iritsi berriren bat noraezean edo laguntza beharrean. Ibrahima ezagutu nuen egunean, 2018ko urriaren 25ean, ni nintzen itzuli hori egiten eta ikusi nuen Irungo tren geltokian bazirela dozena bat pertsona, begiekin pentsatuta, iruditu zitzaizkidanak iritsi berriak. Horietako bat zen Ibrahima. Bi egun zeramazkin Irunen, eta kontaktu zidanez, gure elkarteko norbaitek egina zion harrera ordurako. Esan zidan ezagutzen zuela gure funtzionamendua eta nahi banuen berak lagunduko zidala goiz hartako itzulia egiten, errazagoa zelako bera bezalako bat hurbiltzea etorri berriengana ni hurbiltzea baino. Eta hor hasi zen gu bion arteko harremana.

'Barruan zerbait mugitzen dizun haria da harremana'. Zer mugiarazi zizun zuri?

Bide bila dabilen migrante bat ikusteak beti mugitzen du barrena, nahiz eginez-eginez ohitzen garen eta gutxiago harritzen gaituzten egoera gogorrek. Esango nuke halako pertsona batekin topo egite hutsak beste leku batean jartzen gaituela, eguneroko gure confort egoeratik kanpo. Haien aurpegierek, begiek, dena esaten dute. Muturreko egoeran daude eta Hendaia eta Irun artean oztopo handi bat dute aurrean, arriskua ere suposa dezakeena. Ibrahimarekin ere abiapuntua hori izan zen, nahiz gero bilakaera desberdina izan duen harekiko harremanak. Normalean egun bateko edo egun erdi bateko harremana izaten dugu pertsona hauekin, gero abiatzen direlako kostata bidean aurrera, askotan muga gurutzatzeko hainbat ahalegin eginez, eta gaitzen dugulako haien pista. Iristen diren gutxi batzuek erabakitzen dute gelditzea eta asiloa eskatzea. Lau urtean, hogeit bat mila pertsona ezagutu ditu Irungo Harrera Sareak eta horietatik

hogei pertsona baino gutxiagok erabaki dute Irunen asiloa eskatzea. Ibrahimia izan da bat.

Migranteen errealitatea zenbakitan ematen dugu askotan eta salatu izan duzu hor badagoela deshumanizatzeko arrisku bat.

Bai. Matematika inhumano horretan pausa bat egin eta pertsona bati entzuteko beharra sentitu nuen nik.

Migranteez zenuen aurreiritziren bat gainditzeko balio izan dizu?

Bai, noski. Gure hasierako asmoa Poliziarri emateko txostena egitea zen, Ibrahimak asiloa eskatua zuelako hemen. Eta hasi nintzaionean galdezka, Ibrahimak esan zidan bere asmoa ez zela sekula izan Europara etortzea. Migranteekiko nuen klitxe bat hautsi zitzaidan une horretan. Migrante baten atzean ikusten dugun ibilbidearen motibazioaren logika beste bat izaten delako: bizi beharragatik beren lurra uzten duenarena Europara etortzeko, eta nahikoa traba eta gero, iristen denarena. Nahiz eta pentsatzen nuen bakoitzak bere istorioa zekarrela eta bide denak desberdinak direla, ohartu nintzen nik uste baino diferentzia gehiago zeudela zaku berean sartzen ditugun migrante horien artean. Deskolokatuta utzi ninduen, eta ni ere ibili behar izan nintzen nire buruaren bila, aurreiritzi horiek guztien atzetik edo aurretik.

Bion izenean argitaratu duzue liburua, eta zuri entzunda, berdinetik berdinerako harremana ematen du zuenak, oso bi mundu ezberdinetakoak zaretzen arren. Nola egiten da hori?

Oso zaila da berdinetik berdinerako harreman hori lortzea, ia ezinezkoa, nahiz eta ahalegin guztia egin ustez hori lortzeko. Praktikan etengabe konturatu naiz berdinetik berdinerako funtzionamendu hori hautsita dagoela, ni abiapuntu batean nagoelako eta bera beste batean. Hala ere, ahalegindu naiz eusten ahal bezainbat ildo horri, besteak beste liburuaren autoretzan hari emanaz dagokion lekua. Berak bizi izandakoa zen, berak kontatutakoa, eta esango nuke, kontaktu ezezik nola idatzi ere berak erakutsi zidala. Horregatik autoretzaren zati handiena berari zegokion. Hori argi nuen, baina beste gauza bat dira hizketan ari garela sortu

"Lau urtean hogeit bat mila pertsona ezagutu ditu Irungo Harrera Sareak, eta horietatik hogeit baino gutxiagok erabaki dute Irunen asiloa eskatzea"

diren milaka desorekak, berdinetik berdinerako harreman hori hausten duten detaileak. Desoreka igarri nuen, adibidez, kontakizunari laguntzeko marrazki bat egingo ote lukeen galdetu nionean, beharbada aurrez sekula marrazki bat egin ez zuenean. Desoreka dago, bera ez zelako ausartzen esatera sekula ez zuela marrazkirik egin. 'Egingo dut, baina gero' erantzun zidan eta isildu zen. Ikasketa prozesu bat izan da hau niretzat, eta saiatu naiz, hanka sartuz beti, konturatzen nigan dauden hainbat inertziak; egunero jo dut harriaren kontra.

'Nik ez nuke hitz egin nahi halako gauzez, kontatzen dudanean ikusi egiten dudalako nire begien aurrean aplikatzen ari naizena', dio Ibrahimak liburuan. Nola kudeatu duzu hori idazle moduan?

Zalantza handia izan dut egiten ari nintzen hori zinez egokia zen. Eta orain errazagoa da esatea, baina garai hartan ez genekien liburu moduan zer forma hartuko zuen, eta are gutxiago zer bide egingo zuen. Laguntzeko ahalegin horretan, duda handiak sortu zitzaizkidan. Ni kontziente nintzen gogoratzeko eta kontatzeko egiten ari zen ariketa horretan sufritzen ari zela eta behin baino gehiagotan esan nion 'utzi, Ibrahimia, utzi', baina halakoetan berak erakutsi zuen indarra segitzeko. Uste dut zentzu bat ikusi ziola ariketari eta indarra atera zuela beretzat erraza ez zena egiteko. Zein den zentzu hori zehazki? Horri berak erantzun beharko lioke.

Eta zuk zer zentzu topatu zenion?

Usaintzen nuen Ibrahimak ere ez zuela aukera handirik asiloa lortzeko. Banekien maiz ukatzen dutela asiloa, eta are gehiago Afrikatik datorren batek eskatzen duenean, eta zoritxarrez eta harrigarriki, gure sistemak ez duela Ibrahimia bezalako baten tragedia kontuan hartzen asiloa emateko. Eta jarri nintzen pentsatzen bestela

"Saiatu naiz Ibrahimaren musikalitate ginear hori mantentzen, eta errespetu osoz ekartzen euskarara, akrobaziarik egin gabe oinazearekin"

etorriko ez den babes bat nola sortu genezakeen. Babes politikorik ezin bazuen eduki, gutxienez babes soziala izan zezala nahi nuen. Hari begirakoa da hori, baina guri begira sentitzen nituen beste behar batzuk: batetik, migrantez ari garenean zertaz ari garen jakiteko beharra, niri ere Ibrahimak erakutsi zidalako nolakoa den migrante baten odisea Afrikan zehar, eta bestetik, nahi nuen kasu hauen gainean erabakimena dutenek beste gogoeta bat egitea edo beste sentsibilitate bat erakustea.

Zer uste duzu sentitu duela Ibrahimak bidean senperrenak eta bi bizi, hona iritsi eta ikusi duenean hemen migranteak nola hartzen ditugun?

Nire interpretaziotik erantzungo dizut horri. Nahikoa iritsi berria zen Ibrahimak nik ezagutu nuenean. Hilabete baino gutxiago zen Almeriara iritsi zela. Ez zeukan Europarekiko ideiarik eraikita, berak ez zuelako Europara etorri nahi; ez zuen halako fantasiarik eginda beraz. Hona iritsi eta nahikoa azkar topatu zuen Irungo Harrera Sarea eta topatu zuen halako familia bat, lagunarte bat, borondate bat. Familia horren araberrako irudia eraiki zuen hasieran, baina noski, Ibrahimak bi begietatik ikusten du eta kontziente da zer dagoen. Hiru urte baino gehiago joan dira etorri zenetik eta ezagutu ditu hainbeste borondate ez daukan burokrazia baten oztopo etengabeak. Hilabetez hilabete joan gaitetzke kontatzen zein zaila den egoera erregularizatzea eta lasai arnasa hartzera iristea.

Zein da Ibrahimak Balderen egoera orain?

Aprendiz moduan dago lanean praktiketako kontratu batekin, Ibrahimari ezin zaiolako kontraturik egin asiloa ukatu ziotelako. Asiloa ukatuta, paperik gabe dago, egoera irregular batean, kanporatua izateko arriskupean. Asiloaren ukazioari helegitea jarri genion

Espainiako Auzitegi Nazionalean eta ebazpenik ez dagoen bitartean suposatzen dugu kanporatua izateko arriskua neutralizatua dagoela, baina horrek ez du kentzen segitzen duela paperik gabe, eta beraz, aspalditik kontratua egin nahiko liokeen enpresa batek ezin diola kontraturik egin. Asiloa ukatuta, errotze soziala eskatzeko aukera dute baldintza batzuk betetzen dituztenek eta Ibrahimak betetzen ditu, baina oraindik borrokan ari dira eskaera hori behar bezala egiteko. Dirua, denbora eta pazientzia ere ari da galtzen.

Kontakizuna gogorra da, baina liburuak badu halako poetika bat. Zer lan eman dizu horrek?

Laguna dudan pertsona baten intimitatea da kontatzen ari naizena, istorio gordin bat, eta saiatu naiz oreka zaintzen bere kontakizuna beste hizkuntza batera ekarrita. Buruhauste handia izan da aldiro esaldi bakoitzean oreka bilatzea. Saiatu naiz bere musikalitate ginear hori, bere estilo hori, sinpletasunaren magia hori mantentzen, eta errespetu osoz ekartzen euskarara, akrobaziarik egin gabe oinazearekin. Konta ezin bestetan berridatzi ditut esaldiak eta saiatu naiz aldiro nire arrasto batzuk kentzen, ohartu naizelako bera bakarrik gai zela kontatzeko, baina hala ere, oraindik ere liburu hartu eta halako dardara bat sentitzen dut.

Zabaltzen-Sartuk antolatu du hitzaldia, gizartean desabantailan dauden pertsonen laneratzeko eta gizarteratzeko erraztasunak emateko lan egiten duen erakundeak. Beharbada publiko ezberdina izango duzu [Asteartean egindako elkarrizketa da]. Kezkatzen zaitu?

Han edo hemen gertatu izan zait migranteak direnen aurrean hitz egitea gai hauetaz, baita magrebdar dezente dauden taldeetan ere, eta jakina, haien irudia -libiarrena, argeliarrena eta marokoarrena- ez da erraza Saharaz hegoaldekoa den baten begietatik ikusita. Baina egia da bereziki interesatzen zaidala haiekin kontrastatzea nola bizi duten beraiek ere errealitate hau, ezagutzen dutelako haiek ere errealitatea hau, beharbada beste ertz batetik edo zuzen-zuzenean akaso. Iruditzen zait leku hauetan sortzen dela elkarrizketa bat askotan beste leku batzuetan sortu ezin daitekeena, eta horregatik, neu ere entzutera noa, hitz egitera bezainbat.

Gorren areto futboleko Espainiako txapelketako kanporaketak jokatu dituzte Olaizagan

Gorren Espainiako Kirol Federazioak antolatzen duen gizonezkoentzako Espainiako Areto Futbol Txapelketako sailkapen fasea jokatu zuten aurreko asteburuan, Olaizaga kiroldegian. Bost talde ziren parte hartzeoak, baina C.D.S. Malaga eta C.D.S. Coslada taldeek uko egin zioten parte hartzeari. Hala, hiru talde aritu ziren lehian: CDS Vila-Real, CDS Huelva eta CDPS Gigorraki. Azken hori, Gigorraki, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazio barruko kirol taldea da. Elgoibarren du egoitza eta herriko kirol instalazioak erabiltzen dituzte entrenamenduetarako, eta horregatik antolatu dute txapelketa Elgoibarren, Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin. Lehiari dagokionez, Huelvako taldea gailendu da Elgoibarko fasean. Hala ere, Elgoibarren lehiatu diren hiru taldeek lortu dute final-laurdedenetako kanporaketarako sailkatzea. Alcalá de Henaresen (Madril, Espainia) jokatuko dituzte final-laurdenetako



kanporaketak, uztailaren 9an eta 10ean. Gigorraki taldeak Valentziako CDS Castellón Asorcás taldea izango du aurkari.

Aitziber Olaizola eta San Migel taldea gailendu dira Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketan

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketako azken jardunaldia jokatu zuten, zapatuan, Floreagako bolatokian (argazkian lehen sailkatuak), eta bederatzi jardunaldi jokatu ostean erabakita gelditu da sailkapen orokorra. Garikoitz Rodríguezek (Asolaberri) bukatu du lehen postuan, 31 txirlorekin. San Migel taldeko Anjel Ibarluzea elgoibartarra bosgarren postuan sailkatu da, 27 txirlo botata, eta emakumezkoetan San Migel taldeko Aitziber Olaizola gailendu da, 15 txirlorekin. Lastur taldeko Amaia Korta izan da txapelburua, 14 txirlorekin. Taldekako sailkapenean San Migel A taldea izan da onena, 104 txirlorekin. Zapatu honetan, ekainaren 11n, Bolari Eguna ospatuko dute Sorluzen. Goizean, Gipuzkoako txapelketan lehen 64 postuetan sailkatu diren bolariak Lehendakari Saria jokatuko dute, San Andres bolatokian. Jokoaren ostean, Txurruka jatetxera joango dira bazkaltzera, eta bazkalostean omenaldia egingo diete Juan Kruz Arizaga *Korta* eta Juan Klaudio Unamunori (argazkian), hiru txirlo bola jokoaren alde "egin duten eta egiten duten lana eskertzeko". Bolari Eguna amaitzeko, txapelketetako bolari onenak saritzeko sari banaketa ekitaldia egingo dute.






Haundik agur esan dio Errege Kopa jokatzeko ametsari

Errege Koparako sailkapen fasea jokatu zuten domekan, Iruña Okako Arrate futbol zelaian. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Ohorezko Erregional Mailan lehiatu eta lurralde bakoitzeko liga txapelketan bigarren postuan sailkatu ziren hiru taldeak lehiatu ziren: Haundi, Dinamo San Juan (Bizkaia) eta San Viator (Araba). 45 minutuko partidak jokatu zituzten elkarren aurka. Haundik lehen partidari galdu zituen hurrengo kanporaketara igarotzeko aukera ia guztiak, 1-0 galdu baitzuen Dinamo San Juanen aurka. Elgoibarko taldeak San Viator taldea izan zuen aurkari bigarren eta azken neurketan, eta

hutsen berdinduta amaitu zen partida. Hortaz, sailkapenerako aukerarik gabe gelditu zen Haundi. Bizkaitarrek eta arabarrek elkarren aurka jokatu zuten azken partidari erabaki zen dena. Bana berdindu zuten eta Santurtziko San Juan auzoko taldeak lortu du datorren denboraldian Espainiako Errege Kopako atariko kanporaketa jokatzeko sailkatzea. Kanporaketa hori gaudituz gero, Lehen Mailako talde baten aurka jokatuko du Kopako lehen kanporaketa. Harmailetan giro polita sortu zuten taldeetako zaleek. Elgoibartik 125 lagun inguru joan ziren Haundi animatzera, klubak jarritako autobusean horietako asko.

Ekainaren 24an jokatuko dute Nahaste Borraste

Bi urteko etenaren ondoren, bueltan da Kimetz elkarteak antolatzen duen Nahaste Borraste kirol proba. Ekainaren 24rako antolatu dute, eta 19:00etan hasiko da Kalegoen plazatik. Betiko formatua izango du probak, bizikletan, zakua bizkarrean dutela eta korrika egin beharko baitute aspaldiko urteetako ibilbide bera. Oraingo berritasun bakarra da izena aurrez eman daitekeela. Egunean bertan ere egongo da, baina, izena emateko aukera, 17:00etatik 18:30era. Antolatzaileek zehaztu dute Kalegoen



plazan izango dela Kimetz elkartearen beharrean, gauzak errazte aldera. Aurrez izena emandakoek egunean bertan jaso beharko dute dortsala, 18:30ak baino lehenenago. Elgoibarren edo Mendaron lan egin edo bizi direnek baino ezin dute izena eman.

June Loidi eta Julen Urruzola nazioarteko txapelketetan lehiatuko dira Espainiako eskubaloi selekzioekin

Espainiako eskubaloi selekzioaren deia jaso dute June Loidi eta Julen Urruzola eskubaloi jokalariek: Mediterraneoko Jokoetan lehiatzeko Loidik eta Europako Txapelketa prestatzen hasteko Urruzolak. Espainiako Senior mailako eskubaloi selekzioak, *-Guerreras taldeak-*, Mediterraneoko Jokoetan hartuko du parte uda honetan. Aljeriako Oran hirian jokatuko dira jokoak, ekainaren 29tik uztailaren 6ra bitartean. Egungo txapeliduna da Espainiako taldea, urrea irabazi baitzuen 2018an Tarragonan jokatu zituzten Mediterraneoko Jokoetan. Hortaz, Europako Txapelketa jokatzeko sailkapena lortu ostean, tituluari eustera joango dira Aljeriara. Espainiak Tunez, Kroazia eta Algeria izango ditu aurkari lehen fasean.

Era berean, Hispanos Junior eskubaloi selekzioak Portugalen jokatu duen Europako Txapelketa prestatzeari ekin dio, eta horretarako lagunarteko nazioarteko txapelketa jokatu dute Suitzako Klotten hirian, ekainaren 24tik 26ra bitartean. Gizonezkoen junior mailako lau selekzio lehiatuko dira Airport Trophy izeneko txapelketan: Suitza, Espainia, Alemania eta Frantzia. Espainiako hautatzaile Rodrigo Reñonesek 18 jokalariditu, eta horien artean da Julen Urruzola (Elgoibar, 2002).



300 haur eta gaztek hartuko dute parte kirol campusean



Ia 300 haur eta gaztek eman dute izena 2022ko udako kirol campusean. Zehazki 296 dira eta 16 begiralaren gidaritzapean arituko dira, ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean. David Rodriguez izango da campuseko koordinatzailea. Iaz 267 hurrek hartu zuten parte.

'Euskara ala Ezkara kirolean?' jardunaldia egingo dute Elgoibarren irailaren 3an

Irailaren 3an egingo duten *Euskara ala Ezkara kirolean?* izeneko jardunaldia aurkeztu dute. Elgoibar, kirola eta euskara. Hiru elementu horiek izango dira aurtengo jardunaldiko elementu edo osagaiak. Zein da Elgoibarren kirolak duen dimentsioa eta eragina? Zein dira elgoibartarrok gehien egiten ditugun kirolak? Elgoibarren euskaraz egiten al da kirola? Zenbat bai eta zenbat ez? Zergatik da garrantzitsua kirola euskaraz egitea? Kirola ere herrigintza al da? Zergatik? Zer ematen dio kirolak Elgoibarren ongizateari? Eta euskarak? Zelakoak dira eliteko kirolariak? Bizimodu eroso al dute? Galdera horiei eta beste batzuei erantzutera etorriko dira kirol munduko hainbat lagun Elgoibarrera, irailaren 3an, zapatua. Eliteko kirolariak ere hartuko dute parte euren bizipenen berri emateko, June Loidik, Jokin Altunak eta Xabi Prietok, hain justu ere. Goiz osoko jardunaldia izango da, Elgoibarko IMH ikastetxean, 9:30ean hasi eta 14:30ak arte. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon



Topaguneak, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Udaleko Euskara Sailak antolatu dute aurtengo jardunaldia. Interesdunek Elgoibarko Izarran (943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) edo Elgoibarko Udal Kirol Patronatuan (943 744 415 / olaizagaharrera@hotmail.es) eman behar dute izena.

Maite Maiorak laugarren egin du Hochkönig Skyrace mendi lasterketan, Austrian



FotoIosu

Skyrunner World Series txapelketako hirugarren proba jokatu zuten ekainaren 4an Austrian: Hochkönig Skyrace mendi lasterketa. Christian Mathys suitzarra izan zen azkarrena 32 kilometroko ibilbide gogor eta teknikoa osatzen, eta emakumezkoetan, Marcela Vasinova txekiarra. Skyrunning txapelketako egungo munduko txapelduna den Vasinovak 4 ordu, 13 minutu eta 6 segundoko denbora egin zuen. Rosanna Buchauer (4.22:55) alemaniarrek egin zuen bigarren eta Iris Pessey (4.27:44) frantziarrak hirugarren. Maite Maiorak eskura izan zuen hirugarren postua, Pesseyrengandik zortzi segundora helmugaratu baitzen. Emaizta honi esker, munduko Skyrunning Kopako finalerako sailkatzea lortu du kirolari mendarorak. Aurten, gainera, etxean jokatu dute finala, Zeanurin (Bizkaia) jokatzeko den Gorbeia Suzien probak skyrunning modalitateko Munduko Kopako finala hartuko baitu 2022ko urriaren 8an. Mendi-lasterketen espezialitate honetako 40 atleta onenak lehiatuko dira ISF (Nazioarteko Skyrunning Federazioa) erakundeak antolatzen duen txapelketako final handian.

LANA

Eskaerak

Asteburuetan adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat.

618 439 041

Biltegiko lanetan edo montajearen egingo nuke. Urteetako esperientzia daukat enpresa munduan. Euskalduna naiz, gidabaimena daukat eta lanean hasteko prestutasun osoa.

655 721 822

Adinekoak zainduko nituzke, goizetan edo gauetan. Titulua daukat. 643 071 900

16 eta 17 urteko bi neska gara eta lan egin nahiko genuke, ekainean eta uztaillean, umeak zaintzen edota merkataritzan, dendaren batean. 609 715 085

Etxeak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat.

642 716 984

ETXEBIZITZAK

Bi pertsonantzako apartamentua alokagai Cadizen, uztaileako.

653 733 457

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).


Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Lurralde Kontrolak</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Etxebizitza bat daukat alokairuan utzia eta alokairu kontratuaren arabera maizterrak komunitate gastuak ordaindu behar ditu. Badira hilabete batzuk, maizterrak, komunitate gastuen ordainagiriak bueltan bidaltzen dituela. Jabeen azken batzarrean erabaki zuten ordaindu gabekoak erreklamatu behar zaizkiola. Jakin nahi nuke ea komunitateari eska diezaiokedan zorretan dauden kuotak maizterri erreklamatzeko.</p> <p>Azaldutako egoeran bi harreman daude: batetik, zuk komunitatearekin duzun harremana, eta horren arabera zu derrigortuta zaude komunitate gastuak ordaintzera betebeharra pertsonala delako. Bestetik zuk, alokairu kontratuaren bidez maizterrearekin duzun harremana. Horren baitan biezako betebeharrak daude. Horietako bat da maizterrak komunitate gastuak ordaintzea horrela adostu baitzenuen kontratuan. Beraz, zuk baino ezin diezaiokezu hori eskatu eta betebeharrak horietaz ezin da komunitatea arduratu.</p> <p>Aholkua: Komunitatea etxejabearekin eskatzera baino ezin du mugatu eta honek ezin du aitzakia modura esan etxea alokairuan daukanak ez dituela kuotak ordaintzen. Hortaz, arazoa etxejabearen eta maizterren artean konpondu behar dute komunitate albo batera utzia eta hauek elkarri egiten dizkioten erreklamazioez arduratu gabe.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Jon!**
Atzo 7 urte! Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko denon partez!



Zorionak, **Peio!**
Astelahunean 6 urte bete zenituen! Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta bereziki Danelen partetik.



Zorionak, **Maddi!**
Ondo-ondo pasa dezazula zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Itaipointegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordu hartzeko.

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

EXPRESS ESKAINTZAK!

3KFE560WI COMBI BALAY HOZKAILUA

A E

- Ez frost
- Edukiera: 305 litro
- 186 cm-ko altuera
- Fresh kutxa, frutak eta barazkiak
- LED argiztapena
- Eco funtzioa

639 €
(prezio unitateko)

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

10 BARIKUA

19:00 Zine foruma: 'En 80 dias'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

19:00 Dantza jaialdia. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Kalegoen plazan.

11 ZAPATUA

10:00 Dantza ikastaroa: 'Animaliekin dantzan'. Belen Capapek emango du, Almaur elkarteak antolatuta, Lilan.

10:00 Mintxetako igerilekuak irekiko dituzte.

13 ASTELEHENA

12:00 San Antonio eguneko meza, Urruzunoko elkarte aurrean.

16:30-18:30 Zirko tailerra, Mendaroko eskola-umeentzat. Trinitaten. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

19:30 Kurtso amaierako kontzertua, musika eskolako auditoriumean.

14 MARTITZENA

12:00 Pentsiodunen bizikleta martxari ongi-etorria, Maalako parkean. Segidan manifestazioa egingo dute, Giza Eskubideen parkeraino, eta han ekitaldia egingo dute. Ondoren, bazkaria egingo dute.

15 EGUAZTENA

19:00 'Biraka Exhibition Center'. Biraka taldekoen kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

16 EGUENA

16:30 Ikastaroa: Urban sketching. Ibon Serranok emango du marrazketa ikastaroa, gazte zein helduentzat. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

18:00 Mahai-ingurua: 'Urrats bat digitalizatorako'. Beatriz López eta Esther Velasco izango dira hizlariak eta enpresa txikien digitalizazioa izango dute hizpide. Aita Agirreko areto nagusian.

19:00 'Biraka Exhibition Center'. Biraka taldekoen kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

17 BARIKUA

19:00 'Biraka Exhibition Center'. Biraka taldekoen kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

19:00 Udako Festa. Beatriz Egizabal eta Getari Etxegaraireren bakarriketak, eta Ane Zabaleta eta Deñe Garciaren kontzertua. Doan, Lilan.

Osasun gida

aldaz
horts klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Elbar

677 551 850

fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/19

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745



RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku eder
horts klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>10 BARIKUA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Arriola</p>	<p>11 ZAPATUA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>12 DOMEKA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>13 ASTELEHENA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>
<p>14 MARTITZENA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Arriola</p>	<p>15 EGUAZTENA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>	<p>16 EGUENA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>17 BARIKUA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>

Eta, Debabarrenean zer?

SAN JOAN AURREKO JAIA. Ekainaren 11n, Eibarren.

Egun osoko egitaraua prestatu dute, Euskal Jaia ospatzeko.

- ✓ 10:30-14:30 Skate erakustaldia, HOP eta IPAR taldearen eskutik. Untzaga plazan.
- ✓ 12:00 Urban dance. Julian Etxeberría - Zuloagatarren - Eibarko Bizikleta Plaza - Untzaga Plaza - Ego Gain - Torbio Etxebarria.
- ✓ 16:00 Untzaga plazan, San Joan Igeriketa Saria. Ipurua kiroldegian.
- ✓ 16:00-21:00 Break Dance eta New Style Txapelketa. Txaltxa Zelain.
- ✓ 20:00 Gau poetikoa, Maite Lorenzok zuzendua. Ibarkurutzen.

Aurrematrikulazio epea zabalik!

Irakasle eta metodologi berriak
Iraia doan izango duzue metodologi berria frogatzeko!
Etorri eta informa zaitetz!

- Eskolako ingelesaren errefortzua
- Cambridgeko azterketak. LH, DBH eta helduak
- Talde Txikiak

667 261 248

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Komertzioekin lan egiten dugu (etxeko ehungintzekin eta jantziekin) TARIFA BEREZIAKI!

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik? Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira. Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com



Manu Sanchez



Izaro Etxegibel

“Nik, Pertsefone jainkosak bezala, lurpeko mundura jaitsi eta tristuraren zulo iluna zeharkatuko dut”

Tristura, goibeltasuna edo tristezia sufrimendu psikologikoa duenaren egoera da, norberak jasandako ezbehar eta galeren ondorioz. Batzuetan, arina eta iragankorra, gehienez negarra eragin dezake; beste batzuetan, sakonagoa da eta depresioa eragin dezake. Oinarrizko emozioetako bat da, alaitasuna, gorrotoa, ustekabea, beldurra eta mespretxuarekin batera.

Tristura sorkuntzarako leku ona da, bide ezin hobearen barren-barrenean dugun hura ateratzeko, biluzteko. Garenik eta benetakoen bilakatzen gara triste gaudenean; bilakatzen naiz, bederen. Azalekoago gara pozik? Errazago zaigu pozik agertzea, agian.

Badakigu musika tristeak gure buruak lasaitu ditzakeela, gimnasia emozionala dela garunarentzat. Badute, beraz, egoera tristeek ontasunik, izaera katartikoa, eta beste aldagai oso interesgarri bat: sentimenduen unibertsaltasuna.

Gauz bakarrik ikus daitezke izarrak, iluntasunak

uzten digu argia ikusten. Ez da argirik ilunik gabe.

Ez ukatu, baina, triste zaudela; sentitzen duzunaren zergatia zehaztu; hausnartu, zeure burua epaitu gabe; ez da emozio atsegina, baina gauza asko eraldatzeko aldaketa-eragile boteretsua ere bada; egin negar behar baduzu, lasaigarria izan daiteke eta endorfinak askatzen lagun diezazuke; aurkitu zure helburua zoriontsu izateko, beharrezkoa da autoezagutza lantzea; egin kirola; zaindu elikadura; eman denbora zeure buruari eta ospatu poz txikiak, eta aurreko guztiak balio ez badu, terapiara joan eta laguntza eskatu; zaindu.

Nik, Pertsefone jainkosak bezala, lurpeko mundura jaitsi eta tristuraren zulo iluna zeharkatuko dut. Nahiz eta ez den atsegina, nago hortik indartuta aterako naizela, udaz gozatzeko prest.

Tristura da arimaren egoera bihotz-mingarria, barea eta iraunkorra, nahigabeak edo oinazeak gogo hartzea. Da goibeltasuna, tristetasuna, tristezia.



**Zuen oroimena beti izango da
gure bihotzetan.**

Etxekoak

Haien oroimenez urteurreneko meza izango da,
domekan, ekainaren 12an, goizeko 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

XII. URTEURRENA

**Iñaki
Arrieta Zubia**

2010eko urtarrilaren 15ean
hil zen.



I. URTEURRENA

**Begoña
Gil Altuna**

2021eko ekainaren 9an
hil zen.



I. URTEURRENA

Francisco Egea Garcia

2021eko ekainaren 11n hil zen, 70 urte zituela.

**Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

Familia

Zuen oroimenak indartzen gaitu



XIII. URTEURRENA

JUANA BARRUTIA GABILONDO

2009ko apirilaren 16an hil zen



XV. URTEURRENA

RAMON CANALES TRUEBA

2007ko maiatzaren 2an hil zen



XI. URTEURRENA

JULIA BARRUTIA GABILONDO

2011ko azaroaren 5ean hil zen

Elgoibarren
bizi, erosi
herriak irabazi



TXARTELAREKIN ORDAINDUTA

10€-KO HOBARI SARIAK

LORTU AHALKO DITUZU.

3000€ ZOKATUKO DITUGU

URTEA AMAITU BITARTEAN.